



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko,
Landa Ingurune eta
Lurralde Oreekako Departamentua



Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de Promoción
Económica, Medio Rural
y Equilibrio Territorial

ENERGIA AURREZTEKO ETA ERAGINKORTASUNA LORTZEKO PROGRAMA 2017

Aholkularitza teknikoaren emateko proposamenak

Debagoieneko Mankomunitateak bultzatutako "Energia Aurrezteko Programa"n aholkularitza teknikoaren ematea nahi duten enpresek ondoko baldintzak bete beharko dituzte:

- 1.- Debagoieneran kokatuta egotea.
- 2.- Otsailaren 12ko 56/2016 Errege Dekretuaren arabera "Proveedor de servicios y auditores energéticos" bezala erroldatua egotea eta horren agiria aurkeztea.
- 3.- Egingo diren auditoriak "Registro Administrativo de Auditorías Energéticas" erregistroan aurkezteko konpromisoa hartu.
- 4.- Energía auditoriak egiteko Europako kalitate araua UNE-EN 16247 jarraitzeko eta betetzeko konpromisoa hartu.
- 5.- **Otsailaren 27rako** programaren aholkularitza teknikoaren emateko proposamena aurkeztu beharko da, non ondorengo atalak jasoko diren:
 - a) Enpresaren datuak. (Izen soziala, I.F.Z., Helbidea, Telefonoa, e-maila, harremanetarako kontaktua.
 - b) Zerbitzua emango luketen teknikarien kurrikuluma.
 - c) Egingo diren auditorien edukiak eta prozesuen zehaztapena, atalak, burutuko diren lanak jasota (beti ere UNE-EN 16247 metodologia jarraituta)
 - d) Orduko kostea (BEZ barne)
 - e) Esperientzia: Egindako diagnostiko edo auditoria energetikoak.
 - f) 2017ko martxoa eta ekaina artean 8-10 diagnostiko-auditoria egiteko konpromisoa, horretarako, gehienez, 255 ordu sartu beharko direlarik.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Ekonomia Sustapeneko,
Landa Ingurune eta
Lurralde Oreekako Departamentua



Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de Promoción
Económica, Medio Rural
y Equilibrio Territorial

PROPOSAMENAK BIDALTZEKO HELBIDEAK

Proposamenak e-mailez edo paperean entregatu ahal izango dira:

- enpresa@debagoiena.eus helbide elektronikoa edo
- **Nafarroa etorbidea, 17 20500 (Arrasate-Mondragón)** helbidean

LANEN ESLEIPENA

Debagoieneko Mankomunitateak, "Energia Aurrezteko Programa"n aholkularitza teknikoa jasotzeko, otsailaren 27rarte jasotako proposamenak aztertu eta baloratuko ditu. Mankomunitateak jarritako baldintzak betetzen dituzten enpresen artean, eskaintza onena egiten duen enpresari esleituko dio aipatutako lana.

Arrasaten, 2017ko otsailaren 10ean